

# **LAN-EZBEHARRAK NAFARROAN 2019**

**ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU**

# LAN-EZBEHARRAK NAFARROAN 2019

## 1. Sarrera

Laneko ezbeharrak ugalduz joan dira urterik urte. Langileek jasaten duten bortizkeria-mota hori gizarte osoaren arazo larria da, egiturazko arazoa, ezarrita dizkiguten politika neoliberalen ondoriozkoa.

Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen jatorrian dauden egiturazko arrazoien artean honako hauek ditugu: prekarietatea, enpleguaren kalitate urria, prebentzio-neurrien eskasia, azpikontratazioa, aldi baterako kontratuak, lanaldi partzialak, laneko erritmo biziak, prestakuntzarik eza eta erakundeen lan-osasunaren arloko kontrol arinak.

Eta horren guztiaren azpian dagoena enpresarien diru-gosea da. Etekin-tarteak mantentzeko, pertsonaleko kostuak murrizten dira, eta prekarietatea zorroztu. Nafarroan egunero-egunero 76 langilek jasaten dute lan-istripu edo lanbide-gaixotasun bat.

## 2. Estatistika ofizialak (ISPLN)

2019ko hirugarren hiruhilekora arte 19.657 istripu zenbatu dira, horietatik 9.179 bajarekin eta 10.478 bajarik gabe. Bajadun istripuetatik 19.563 arinak izan dira, 81 larriak, eta 13 heriozkoak.

Hortaz, lehengo urteko aldi berdinarekin alderatuz gero, lan-istripuen kopuru osoa %19,8 handitu da. Eta larritasunaren arabera, istripu arinak %18,4 ugalduta dira, larriak %44 eta heriozkoak 3 gehiago izan dira.

Azken 5 urteotan istripu arinak etengabe ugaltzeko joera izan da, mutualitateek istripuen larritasuna arindu ohi dutelako. Izan ere, istripuen %99ak "arinak" balira bezala sailkatzen dira, Lan Ikuskaritzaren ikerketak saihesteko, eta enpresek prebentzio-neurririk eta erantzukizunik beren gain hartu behar ez izateko.

Hala eta guztiz ere, istripu larriak ere dezente ugalduta dira, batez ere azken urtean.

Orobat, bajarik gabeko istripuek goranzko joera dute, 2015. urteaz geroztik ugalduz joan dira etengabe. Horrelako istripuak dira gehien ezkututzen direnak. Mutualitateek kalifikatzen dituztenez, enpresek ez dute jakinarazten istripu-parte horiek.

Bertzalde, eragin-indizea (istripu-kopurua mila langileko) 0'71 puntu igo da 2019an, lehengo urteko aldi berdinen aldean. Eta industria sektorea izan da hazkundera gehien bultzatu duena.

Ondorioz, eta Nafarroako erregistro ofizialen arabera, lan-istripuak ugalduta egin dira 2019an, lehengo urtearen aldean, hala termino absolutuetan, nola termino erlatiboetan, 2012an hasitako goranzko joerari eutsiz.

Lanbide-gaixotasunei dagokienez, 2019ko urtarriletik irailera bitartean laneko gaixotasunen 1.375 parte jakinarazi dira; hau da, %17,7 gehiago, lehengo urteko aldi berdinen aldean. Bajadun parteak nahiz baja gabeko parteak areagotu dira, eta igoera nabarmenagoa izan da emakumeen artean.

Bereziki aipatu beharrekoa da lanbide-gaixotasunak ez direla jakinarazten gertatzen diren neurrian; izan ere, mutualitateek gaixotasun arrunt moduan hartzen dituzte, eta sistema

publikora bideratu. Hala eta guztiz ere, jakinarazpen-parteeek gora egin dute etengabe azken urteotan, batez ere emakumeen artean. Datu horrek lanaren banaketa sexuala dagoela berresten du, eta orobat nahasmendu muskuluesketikoei loturiko gaixotasunak gehienbat sektore feminizatuetan gertatzen direla.

Hortaz, lan-istripuak eta baja eragiten duten lanbide-gaixotasunak kontuan hartuz, erran dezakegu Nafarroan 35 baja-parte ematen direla egunero, lanbide-arrazoiengatik.

### 3. Datu sindikalak

2019. urtean ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuok 15 istripu hilgarri zenbatu ditugu Nafarroan, eta 46 Hego Euskal Herrian. Hori dela-eta, 6 pertsona gutxiago hil dira, 2018an baino.

	2019	2018
<b>Nafarroa</b>	<b>15</b>	<b>21</b>
HEH	46	67

Istripuak motaka sailkatuz gero, hauxe dugu:

- %40 traumatikoak dira; harrapatzeagatik, altuerako erorikoagatik edo intoxikazioagatik.
- %26 ez-traumatikoak.
- %20 in-itinere.
- %13 misioan.

Bertzalde, hildakoen %13ek enpresa azpikontratatueta lan egiten zuten.

Industria sektoreak istripuen kopuru osoaren %33 izan ditu, lan-istripu gehienak izan dituen; gero, zerbitzuen sektorea izan da, hildakoen %26 bildu baititu. Eta horiez gain, nekazari bat, eraikuntzako 2 langile eta garraiolari bat hil dira.

Laburbilduz, heriozko istripuak %29 gutxitu dira, 2018. urtearen aldean. Hala ere, termino orokorretan, goranzko joera mantendu da. Beraz, lantokietako lan-osasunaren egoera ez da batere hobetu.

### 4. Estatistikek ezkututzen dutena

Erran bezala, estatistika ofizialek errealitatearen alde bat soilik erakusten dute, izozmendiko erpina. Izan ere, batetik gaitz guztiak ez dira lanekotzat hartzen, eta bertetik, langileriaren zati handi bat kanpoan uzten da, adibidez:

- Etxeko langileak.
- Ezkutuko ekonomian lan egiten dutenak.
- Enpresa-egoitza lurraldetik kanpo kokaturik dutenak.
- Kooperatibistak.
- Garraiolariak. Haien ezbeharrak trafiko-istripuztat hartzen dira.

Estatuaren zenbait ikerlanen arabera, erregistratzen diren lan-istripuak benetan gertatzen direnak baino %30 gutxiago dira. Eta lanbide-gaixotasunak ikusezinak dira, ahantzirik daude.

Horregatik, prebentzio-arloan dugun erronka handienetariko bat ezbeharren benetako kopuruak erakustea da. Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ezkututzen badira, ezinezkoa izanen da neurri zuzentzaileak hartzea, eta lan-baldintzak hobetzeko dugun betebeharra

bazterrean geratuko da.

Gainera, egungo estatistika-sistemetan generoaren ikuspuntua ez da islatzen. Lan-osasunaren arloan prebentzio eraginkorra egin nahi badugu, generoaren aldagaia hartu beharko litzateke kontuan; desberdintasun biologikoak, lanaldi bikoitzaren ondorioak, ezkutuko ekonomian egindako lanak, etxeko langileen egoera...

Emakumeek egindako lanak arrisku gutxikoak direla erran ohi da. Baina errealitateak erakusten digu emakumeen lan- eta diru-baldintzak txarragoak direla, eta baita gizarte-mailako kokapen apalagoan daudela ere. Gainera arrisku desberdinei buru egin behar diete, enplegu prekarioagoen ondorioak sufritzen dituzte, gogoz kontrako lanaldi partzial gehiago egiten dituzte, eta soldata txikiagoak dituzte. Emakumeek denbora gehiago ematen dute "ordaindu gabeko lanetan". Feminizatutako lanek osasunean eragiten dituzten ondorioak epe luzera agertzen dira; eta beraz, kalteak ikusezinak dira.

## **5. Proposamenak lan-ezbeharren aitzinean**

1. Lan-harremanetarako eta babes sozialerako bertako esparru bat sortzea. Esparru publiko eta bermatzailea, mutualitate patronalen eskusartzeetatik kanpokoa, eta Gizarte Segurantzaren eskumena barne hartzen duena.
2. Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritza eskualdatzea, Parlamentuak 2018ko urrian onetsitako adierazpenarekin bat eginez, erakunde horretako pertsonala Europako batez bertzeko mailara igotzeko asmoz.
3. Lan Osasunaren Zerbitzuko pertsonal tekniko eta sanitarioa ugaltzea, Prebentzioko lurralde-ordezkarria abian jartzeko partidaren kontura.
4. Lan-osasunaren politika publikoetara bideratzen diren aurrekontu-partidak handitzea, eta administrazio-esparru bakoitzarendako gutxienerako esleipen bat ezartzea.
5. Kontrol eta jarraipen-ekintzak egitea hurrengo enpresa-mota hauei: agente kartzinogeno, mutageno eta ugalketarako agente toxikoekiko esposizioa duten enpresei, okupazio-ondorengo zaintza ere barne.
6. Jarduera arriskutsuak eta arrisku psikosozialekiko esposizioa duten jarduerak egiten dituzten enpresendako erregistro bat ezartzea, lan-segurtasun eta osasunaren eginbeharrak benetan betetzen diren egiaztatzeko.
7. Segurtasun-neurririk ezagatik istripu larri eta hilgarriak izan dituzten enpresen izenak argitaratzea, eta baita istripuen zergatiak eta erantzukizunak ere.
8. Errepideetako puntu beltzak ezabatzea, errepideetako lan-istripuen kopurua jaisteko.
9. Desamiantatzerako erreserba-funtsak sortzea, eta baita amiantoaren biktimei kalte-ordainak emateko konpentsazio-funtsak sortzea ere.
10. Kontratazio publikoan parte hartzen duten enpresei lan-segurtasun eta osasunean gutxienerako inbertsioak egin dituztelako betekizuna ezartzea, eta arlo horregatik edo azpikontratazioagatik errekerimenduak jaso dituzten enpresei baldintzak ezartzea.

**Iruña, 2020ko urtarrila**